

PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD
MAYORES DE 25 Y 45 AÑOS

PRUEBA COMÚN

PRUEBA 201(



EUSKARA

PRUEBA

SOLUCIONARIO





Argibideak

Probaren iraupena: 45 minutu.

Galdera bakoitzaren bukaeran dator bere balioa.

Irakurri honako testu hau eta erantzun testuaren ostean datozen galderei.

Begiradak

Uneak, irudiak, sentimenduak, begiradak, irribarreak, koloreak... zer da benetan argazkilariek bilatzen duguna argazki-makinaren botoia sakatzen dugunean? Une errepikaezinak eta bakarrak biltzen ditugulakoan nago. Inon eta inoiz sekulan errepikatuko ez direnak gorde nahi ditugu, **hilezkor** bihurtu, ahaztezin izan, denbora gelditu une batez.

Neurri berean, badakigu une eta pasatutako denbora horietara nahi dugunean itzuli ahal izango garela argazki hori begien aurrean jartze hutsarekin. Beraz, ez al da argazkigintza **miraria**? Nola ezagutuko genituzke hainbat eta hainbat pertsona, toki eta gertaera fotografiarik gabe?

Bakoitza **hausnarketa** honetara heltzen denean botoia sakatzeari ekiten dio era konpultsiboan.

Nola lagundu bestela gure **burmuinari** gomuten portura heltzen paperezko asmakizun hauek gabe?

Irudi hau ikusten dudana bakoitzean Istanbul urruneko kale eta auzo zikinetara bidaiatzen naiz. Hango merkatu koloretsu, jendetsu eta usain ezberdinez **zipriztinduetara** abiatzen naiz. Galata, Bosforo, Urrezko Adarra, Meskita Urdina, gaurko Taksim plaza **gatazkatsua**, han ezaguturiko eta **solasaldi** luzeak egindako lagun kurduak agertzen dira berehala.



Istanbuleko neska musulmanak meskitarako bidean Ramadan garaian

Argazkigintza da nire pasio **kuttunetari**ko bat, bidaiatzea bestea. Biak uztartu nahi ditut nire bloga izango den honetan.

Zuen gustukoa izatea espero dut, ba al zatoz?



GALDERAK

1. Deskribatu testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak (igorlea, hartzailea, erabilera-eremua, testu-tipoa, testu-generoa), eta testuak dituen hizkuntza ezaugarri eta baliabideak. Arrazoitu erantzuna. **(2 puntu)**
2. Identifikatu testuaren helburua. **(1 puntu)**
 - a) Azpimarratzea argazkigintzaren garrantzia, eta idazlearen zaletasunei buruz hitz egitea.
 - b) Iritzia ematea argazkigintzari buruz, eta blog baten aurkezpena egitea.
 - c) Argudiatzea argazkiak ere artelanak direla, eta bloga aurkeztea.
3. Bilatu testuan bi metafora edo esapide metaforiko. **(1 puntu)**
4. Egizu testuaren laburpena. **(1,5 puntu)**
5. Esan testuak dioenaren arabera, honako baieztapen hauek egiazkoak ala gezurrezkoak diren. Markatu erantzun egokia gurutze batez. **(1,5 puntu)**. Oharra: txarto erantzundako bakoitzak puntuazio negatiboa izango du).
 - a) Idazleak uste du argazkilariek une ahaztezinak islatu behar dituztela.
 - b) Idazleak ezin du esan zer helburu duten argazkilariek argazkiak ateratzen dituztenean.
 - c) Argazkiek munduan kokatzen eta berriz ere bizi izandako egoeretara joaten laguntzen diote idazleari.
 - d) Zaletasun bakarra du idazleak, argazkilaritza.
 - e) Istorioak eta jendea ezkututzen dira argazki baten atzean.
 - f) Testua albistea da.
 - g) Idazleak galdera erretorikoak baliatzen ditu bere iritziak adierazteko.
 - h) Irakurlearen inplikazioa lortu nahi du igorleak.
6. Eman testuan letra lodiz nabarmenduta dauden hitz hauen sinonimoak edo baliokideak, testuan duten esanahia kontuan hartuta. **(1,5 puntu)**
 - a) hilezkor
 - b) miraria
 - c) hausnarketa
 - d) burmuinari
 - e) zipriztinduetara
 - f) gatazkatsua
 - g) solasaldi
 - h) kuttunetarikoa



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45
URTEK GORAKOAK

2014ko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2014

EUSKARA

7. Argazki batzuk dituzu behean. Argazkien oinetan deklinabide atzizki eta aditz batzuk ezabatuta daude. Hutsuneak bete argazki oinek zentzua izan dezaten eran. (1,5 puntu)

Deklinabide atzizkiak honela daude adierazita:; eta aditzak, berriz, honela: ____.



Azken urteetan, energiaren prezio.....
gorakada gehitu ____ krisi ekonomikoari,
eta ondorio....., gero eta jende gehiago.....
dauka zailtasun..... etxea bero.....

(Argazkia: Argia blogak)



Autobus bat....., kamioi bat..... eta zazpi
ibilgailu..... izan ____ istripua, Istiñako
tunel....., Deban.

(Argazkia: EITB)



Txosnetan, erromeri..... izango ____ nagusi
bihar. Skakeitan talde..... ere ariko ____.

(Argazkia: Berria info.)



2013..... Bertsolari Txapelketa.... final.....
kantatuko ____ zortzi bertsolari.....

(Argazkia: Argia)



EBAZPENA

1. Deskribatu testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak (igorlea, hartzailea, erabilera-eremua, testu-tipoa, testu-generoa), eta testuak dituen hizkuntza ezaugarri eta baliabideak. Arrazoitu erantzuna. (2 puntu)

Gizarte-komunikabideetako esparruan kokatzen da testu hau. Igorlea argazkigintzan eta bidaietan interesatutako idazlea dugu, eta gai horietan zaletasuna duten Interneteko irakurleei zuzentzen zaie iritzi testu honen bidez. **Testu tipoari dagokionez, argudiozkoa** da, igorlearen iritzia adierazi eta defendatzeko idatzitako testua, alegia. **Testu-generoari** begira, berriz, **blog bateko irakurleentzako sarrera-aurkezpen 'post'a da**. Bertan, argazkigintzari buruz duen iritzia adierazteaz gain, irakurleak gonbidatzen ditu aurkezten duen blogean parte hartzera.

Hizkuntza ezaugarriei eta baliabideei erreparatua, **lehen pertsonaren** erabilera da nagusi (*-lakoan nago, dugu...*). Lehen pertsona pluralekoa darabil irakurleen inplikazioa handitzeko. **Lexikoa adierazkorra** da, **adjektibo ugari** eta hitz markatuak (konnotazio positibo zein negatibokoak) erabiltzen dira (*hilezkor, ahaztezin, koloretsu, jendetsu, gatazkatsu...*). Horrez gain, **galdera erretorikoak** (*Nola lagundu (...) asmakizun hauek gabe? Ez al da argazkigintza miraria?...*), **metaforak** (*gomuten portura, paperezko asmakizunak...*), **hitz jokoak** "*inoiz, inon sekulan*"...aipa daitezke. Hartzaileari erreferentzia egiten zaio (*ba al zatoz?*) eta, batez ere, haren inplikazioa eta parte-hartzea lortu nahi da baliabide horien guztien bidez.

2. Identifikatu testuaren helburua (1 puntu)
 - a) Azpimarratzea argazkigintzaren garrantzia eta idazlearen zaletasunei buruz hitz egitea.
 - b) **Iritzia ematea argazkigintzari buruz eta blog baten aurkezpena egitea.**
 - c) Argudiatzea argazkiak ere artelanak direla eta bloga aurkeztea.
3. Bilatu testuan bi metafora edo esapide metaforiko (1 puntu)

Gomuten portura; Paperezko asmakizunak.

4. Egizu testuaren laburpena (1,5 puntu)

Argazkilariek argazkietan islatzen dutena hilezin bihurtzen da, eta argazki horiek pasatako momentu, kolore, egoera, sentimenduak ...berreskuratzeko aukera ematen diete argazkilariei. Idazlearen ustez, miragarria da argazkien boterea. Adibide moduan, Istanbuleko argazki batek iradokitzen diona deskribatzen du, eta irakurleak animatzen ditu bere pasioak diren argazkilaritzari eta bidaiari eskainitako blog horretan parte hartzera.



5. Esan testuak dioenaren arabera, honako baieztapen hauek egiazkoak ala gezurrezkoak diren. Markatu erantzun egokia gurutze batez. (1,5 puntu. Oharra: txarto erantzundako bakoitzak puntu negatiboa du.).

	a	b	c	d	e	f	g	h
Egia			x		x		x	x
Gezurra	x	x		x		x		

6. Eman testuan letra lodiz nabarmenduta dauden hitz hauen sinonimoak edo baliokideak, testuan duten esanahia kontuan hartuta. (1,5 puntu)

hilezkor	hil ezina, hilko ez dena
miraria	gertaera harrigarria edo ohiz kanpokoak. miragarria.
hausnarketa	gogoan erabili, gogoeta egin, pentsatu.
burmuinari	buruari, garunari, adimenari.
zipriztinduetara	likido batetik ateratzen diren tantatxoekin norbait edo zerbait bustitzea edo zikintzea... Tantaka bezala, handik eta hemendik.. Kolorez eta usain desberdin askorekin ...
gatazkatsua	gatazka eta arazoak sortzen dituena... arazotsuetara
solasaldi	elkarrizketa
kuttunetarikoa	guztiz maitea eta begikoena, maitagarrieneta(ri)koa

7. Argazki batzuk dituzu behean. Argazkien oinetan deklinabide atzizki eta aditz batzuk ezabatuta daude. Hutsuneak bete argazki oinek zentzua izan dezaten eran. (1,5 puntu)

Azken urteetan, energiaren prezioen gorakada gehitu **zaio** krisi ekonomikoari, eta, ondorioz gero eta jende gehiagok dauka zailtasuna etxea berotzeko.

Autobus batek, kamioi batek eta zazpi ibilgailuk izan **dute** istripua, Istiñako tunelean, Deban.

Txosnetan, erromeria(ak) izango **da/dira** nagusi bihar. *Skakeitan* taldea ere ariko **da**.

2013ko Bertsolari kantatuko **duten** Txapelketaren zortzi bertsolariak.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45
URTETIK GORAKOAK

2014ko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2014

EUSKARA

**GALDEREN ETA EZAGUTZA ADIERAZLEEN
ARTEKO HARREMANA**

GALDERA	EZAGUTZA ADIERAZLEAK
1	3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri testuinguruak eta horien formatua antzematea.
2	3.1. Multzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea.
3	2.5. Testu baten ideiak laburtzea
4	3.3. Multzo honen berezko testuetan gizarte bizitzarako eta bizitza akademikorako garrantzizkoak diren informazioak interpretatzea
5	3.4. Testuen ezaugarri hizkuntzakoak antzematea.
6	3.4. Testuen ezaugarri hizkuntzakoak antzematea.
7	3.4. Testuen ezaugarri hizkuntzakoak antzematea.